

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

- 1.- Egitasmoaren izenburua: Loratuz Fisioterapia
- 2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2023
- 3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria: II. Neurria: nekazaritzakoak ez diren enpresetan inbertsioak egiten laguntzekoa
4. - Proiektuaren helburua: Emakumeen Osasuna, eta herritarren kontzientziazioa.
- 5.- Inbertsio totala: 48.888,26 €
- 6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 13.369.20
Finantzatzeko beste iturri batzuk:
Lanbide: 1.150 €
- 7.- Onuraduna: Pribatua

* Publikoa
* Pribatua
- 8.- Lankide edo entitate partehartzaileak: Segurako Udala, Goieki, Goimen

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa: Segura herriko alde zaharrean dago zentroa, baina zenbait gaietarako, formakuntza , hitzaldietarako aukera dago desplazatzeko.

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Emakumeen, eta bereziki landa emakumeen osasunarekin loturiko zerbitzua jartzen da martxan Loratuz Fisioterapia zentroan. Fisioterapiaren barne espezializazioa dakar, bereziki zoru pelbikoarekin lotura duten gaiekin dago lotuta, herrian et inguruan zoru pelbikoan oinarritzeaz gain, neurologian, edoskitzean ere espezializatuta dagoen enpresa genuke. Horretaz gain, klaseak eta hitzaldiak ematen dituen enpresa da. Emakumeen ziklo ezberdinetan bide laguntza egiteko asmoa dago (gaztaroa, erditze ostea, eta menopausian). Proiektuan, emakumearekin beharrak osotasunean lantzeko apostua egin nahi da, arlo fisiko eta emozionalean.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Lehen aipatu moduan, espezializazio handiko eskaintza ezartzen da landa eremuan, landa emakumeen profil horretara egokitutako zerbitzu aproposa dela iritzita. Honetaz gain, sentsibilizazio lanak, formakuntza eskaintza eta hitzaldiekin eremu horietako emakumeen osasunaz eta zaintzaren garrantziaz jabeaztea du xede, eta honekin herriko beharren arabera formatzen joateko borondatea, espezialista ezberdinekin lan harremana sendotuz eta herriko osagarri diren beste hainbat zerbitzu posibleekin elkarlana sustatuz. Eskualdeko emagin batekin eta Donostialdeko psikologa perinatal batekin proiektu bat sortzen ari dira eskualdeko udaletxetara zerbitzu gisa eskaintzeko asmoarekin.

Eskualdean, lanpostu berria emakume gazteek osatua, lanpostu gehiago irekitzeko aukera, eta zerbitzu berezi eta aproposa gauzatzen da. Emakumeen sozializazio eta partaidetza sustatzen da, Zegama, Zerain, Mutiloa, Gabiria, Segura, eta Idiazabalgo bailara eremuan bereziki, %50 Arreta Bereziko Eremua izanik.